

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ESKUERNAGAKO UDALA

#### 2016ko zergak kobratzea

Behin onarturik eta osaturik 2016ko zerga hauek ordaindu behar dituztenen erroldak:

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 2016

Zerga hori borondatezko aldian ordaintzeko epea bi hilabetekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Ordainketa bankuan helbideratuta edo eskudirutan egin ahal izango da; eskudirutan bada, udal honek Kutxabank entitatean duen kontuan ordaindu behar da.

Borondatezko epea amaitu eta artean ez bada ordainketarik egin, zerga horren zordunak premiamendu bidean sartuko dira, dagozkien errekargu, berandutze interes eta kostuekin, Arabako Zergen Foru Arau orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezartzen duenaren arabera (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa).

Eskuernaga, 2016ko abuztuaren 23a

*Alkatea*

*IÑAKI PÉREZ BERRUECO*